



Aste honetan ikusi du Jon Maia 'Riomundo' bere eleberraren erdarazko bertsoia kalean. Eta hurrengo astean Bertsolari Txapelketako finalerdian kantatuko du

Jon Maia

«Herri honi eta kultura honi eman didaten guztia itzultzen saiatzen naiz»

Ibon Gaztañazpi

Bazkalondo euritsu bateko kafe garaiarik elkartu gara Jon Maiarekin, Zumaiako taberna batean. *Tempus*-a bera dirudi hizketan, patxadaz, une bakoitzean hitz egokienaren bila. Alaben bila ikastolara joan beharrak salbatu gaitu arratsalde osoko berriketalditik.

Bertsolari, kantari, idazle, musikari, gidogile... Eguraldiarekin hastea errazena.

Gaurko eguraldia gustuko dut, euritsu, baina baita egun eguzkitsuak ere. Hondartzazalea naiz.

Landu dituzun arlo guztietan, hitza ardatz. Hor mugitzen naiz ondo; tailerlean baino hobeto, kar, kar. Beti diot bulegoa buru gainean daramadala, lantokia lepo gainean. Guk buruarekin eta mingainarekin ekoizten dugu. Bi horiek dira nik ongi zaindu beharrekoak.

Hitz horiek zeri ematen diote molde? Zein indarrek bultzatzen zaitu sortzera?

Beti izan dut joera iritzia emateko eta sentimentuak agertzeko; ez gordetzeko. Nire bizitza ulertzeko modua eta nire munduaren ikuskera emateko kantatzen eta idazten dut.

Beraz, gauzak barruan ez gordetzeko premia da guztiaren iturri.

11 urterekin hasi nintzen hitzarekin jolasean. Jolasa ofizio bihurtu da, eta ne-



IDOIA BERATARBIDE

re burua bertsolari ikusi dudanean, inguruko kontuekiko eta nire herriarekiko konpromisoa sentitu dut. Are gehiago, herri honi eta kultura honi eman didaten guztia itzultzen saiatzen naiz.

Batez ere, bertsolari al zara?

Azken 25 urteetan zerbaiti fidel izan banatzaio, bertsolari izan natzaio. Hori da enborra, gainerakoak adarrak dira. Denbora asko eskaini diot bertsolari, eta ia bizitzaren elementu zentrala bihurtu da. Nolanahi ere, niri bertsolaritzak ez dit ezer kendu; nik eman diot hari, nik hala nahi izan dudalako.

Nola eusten zaio hainbeste urtetan bizi-modu horri?

Izan ditut basamortuko zeharkaldiak, bertsotan gozatzen ez nuen urteak... Kultura aldetik eta estetika aldetik zerkusi gutxi zuen mundu batetik nentorren, eta izan nuen bolada bat eroso ez nenbilen. Nire belaualdiak lagundu dit nirearen antzeko giro bat bertsotan ere bilatzen, eta urteekin inguruare aldatu da. Ikasi dut galzorian zaudenean eustek garaipena ekar lezakeela gero. **Hurrengo astean, txapelketan. Ari al zara etxean erratz kirtenaren aurrean kantari?**



Igandea
2009ko azaroaren 8a

berria



Ari naiz prestatzen, bai. Txapelketa ez dut garai bateko transzendenteziarekin bizi, baina gogo biziz nago. Ameslari samarra naiz eta ez dut uste neure buruak goia jo duenik oraindik.

Kultur jarduera bat, bertsolaritza, lehiaketa huts bihurtzea ez al arraroa?

Bertsotan beti izan dira desafioak eta erronkak, baina bertsolaritzaren futbolizazio bat kaltegarri litzateke. Ez dugu galdu behar bistatik bertsolaritza batez ere kultura dela. Arraunaren adibidea jarriko dut, lehiaketa huts bihurtu den kultur jarduera baten paradigma. Izan zitekeen gure historia ulertzeko, itsasoratzeko modu bat. Bertsolaritzak ez luke horretan erori behar, eta ez dut uste eroriko garenik.

Itsasoak erakarmen handia al du zuzan?

Bai, baita kantuetan ere. Uste dut herri hau itsasoari bizkar emanda bizi dela. Itsasoko herri baten moduan ezagutzen gaituzte euskaldunak munduan, eta ontzigitzan munduko abangoardia izanak gara, besteak beste. Itsasoari oso gutxi itzuli diogu eta hor daukagun ondarea apenas landu dugun.

Aste honetan, erdaraz kaleratu da Riomundo. Zer eman dizue eleberririk?

Familia emigrante baten testigantza emateko premia sentitzen nuen. Euskaldunei beren hizkuntzan kontatze-ko txanponaren beste alde, *koreano, maketo* eta *belarrimotz* deiturikoen errealitatea. Bueltan asko eman dit.

Politikan ere jarduna zara.

Euskaldun gisa, politika eta bizitza sinonimoak dira niretzat. Ezin naiz arazo horretatik al egon, bizi dugun injustiziatik kanpo. Munduko nire pasaerak hori dauka berarekin, intrinsekoa da. Pertsona gisa dagozkidan eskubide asko moztuak ikusten ditut, ez naizena izatera derrigortua. Bizitza da politika niretzat; enborra, eta ez adarra.

Zumaia?

Espazio bat baino gehiago, pertsonak, lagunak, familia, alabak. Eta itsasoren ondoan dagoen lur zati zoragarri bat ere bai. Esaldi ederra ateratzen bukatzeko, e?